ORRILLA
15
Eguaztena
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA			
Bilbao'kua... ...	6,00	irko, iru ile;	
Bilbao'atazkua	7,50	»	»
Idazki-Itunmena	62,00	»	urtez
Atzarrijetakuak	100,00	»	»

Beldayen itunduba

XXIII urtia ‖ Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° ‖ 234 Idazkutxa ‖ 17.810 Urrutizkiña ‖ 6.984 zenbakija

Egunekua

Itxartuten duaz

Euzko-lugiñetzaz diñoguna da, ori. Lugiñok, aspaldijon, itxaŕtuten duaz, ba.

Orduba zan. Gixagaxo aundijok, alakuok, lotan edo erdi-lotan egon dira, ba.

Eta erdi-lotan egon ixan diralako, itxaŕik bixi ixan diranak, gura ixan daben gustija egiten ixan dautsie: etxietatik jaurti; etxe-eŕentia edozer zijo gatik jaso; botua edo autaŕkija, etxe-jaubiaren alderdira botazo, ta abaŕ...

Ganera, lugiñak luŕari atara ta dirututeko daukazan salgayak, erostzaliak iminden ixan dautsien saneuŕija edo prezijua baño eztabe ixaten ixan.

Txalak ba-dira, arakiñak edo karnazeruak esaten ixan dautsien saneuŕijan saldu biaŕa ixaten eben. Txala erosten juaten yakon arakiñak, olantxe esaten eutsien, ba: "Gauŕ, txal-okeleak eŕaldeko egiten dabena, onen beste, edo aren beste dozu. Eta bijaŕ, biaŕba, gitxijago egingo dau, okelea berantz datoŕeneko zuŕu-muŕutxuba dago-ta".

Eta baseŕitaŕ lugin gixagaxuak, erostzaliaren jakintza-bidia baño beste jakintza-biderik ixaten ezebanezkero, saltzeko eukana, erostzaliaren agintza-neuŕijan saldu biaŕa ixaten eban.

¿Eta luŕ-ongaŕijak eta abaŕ, erosi biaŕa ixaten dabenetan? Orduban be, bardin: saltzaliaren esanetara buruba makuŕtu biaŕa.

Beraz gure baseŕitaŕ zintzua, alde bijetatik oratuten eben, eta alde bijetatik estutu. Bere salgayak, erostzaliak ixentetan eutsan saneuŕijan saldu biaŕa ixaten eban. Eta erosi biaŕ ebazan luŕ-ongaŕijak eta abaŕ, saltzaliak ixentetan eutsan saneuŕijetan.

Aldundi-zergak; udal-zergak; gobernu-zergak eta abaŕ, ostera, iñok baño artezago, iñok baño ziguŕago ordaindu biaŕa

Aginpiderik, baŕiz, ezegaz bez, ezta bere-beria dan autaŕkijagaz be.

Gure euzko-lugin txalogaŕijen bizkaŕetara jausten ziran zama edo karga gusti oŕeik, baña, bat edo bat itxaŕtu barik ixilian auŕera ta auŕera jaŕaitzeko, jopu-zama aztunegijak ziran, jopu-zama iguingaŕijegijak.

Laŕegijak aspeŕtu eragiten dau, ba.

Eta alantxerik eragin dautsie gure baseŕitaŕ aguŕgaŕijei be Eta beti iñoren jopu ixaten aspeŕtu diranian, itxaŕtuten asi dira, alkaŕtu, ta alkaŕ ondo atuten.

Nekazari-Batza bat soŕtuteko asmuetan dabiltzaz... Alkaŕaz besaŕkatu, ta euren ogasunak, euren eskubidiak aldeztuteko asmu bidezkuetan.

Batza ori eratuteko zabalgundia egiten asi dira.

Igazi dan astelenian, Gernika'n ixan dira. Gernika'ko pelota-leku edeŕian.

Lugin-aldezko itzaldijak entzuten geu ezkiñan juan. Ez entzuteko gurarik ezkendulako, juan eziña gebalako baño.

Baña juan ixan ziranak esan euskubenez, lugin-aldezko itzaldi areik entzuten, Gernika'ko pelota-lekuba goi ta be, dana beteta aurkitzen ei-zan.

Gernika'ko pelota-lekuba ez uste ixan gero, irakuŕle, Muxika'ko Ariatza'ko eleizpia lakua danik. Ez. Ariatza'ko eleizpia ez-eze, Elexalde'kua baño be aunditxubagua da, ba, baña bijak bat eginda baño be.

Alan eta gusti be, baña, igazi dan astelenian, Gernika'ko pelota-leku zabal eta luzia, lugiñez bete-beterik auŕkitzen ei-zan.

Itzaldijak

Lugin-aldezko itzaldijei, Beŕmeo'ko Uriaŕte oleskari ospatsubak emon ei-eutsien, asikerea.

Eta oleskari jayo aren bertso bakotxak, layak eta atxuŕak; azak eta poŕuak; baŕa golda ta bostoŕtzak be, gora-goraka iminden ei-ebazan. Uriaŕte, lugiñak eskubak gorantz luzatuta imindeko, akulari trebia da ixan be, gero...

Uriarte'taŕ Estepan'ak amaitu ebanaz batera, Argintxona'taŕ Lin jagi ei-zan, eta berak egiten dagijalako itzaldi edeŕetariko bat egin.

Lin be baseŕikua dozu, baseŕitaŕak zein oñetatik eŕen egiten daben igaŕten dakijana. Baseŕitaren gora-berak; gose ta egaŕijak; neke ta estutasunak eta enparauko biaŕixanak ezagututeko, euren aŕtekua ixatia lakorik eztago, ba. Eta Argintxona'taŕ Lin euren aŕtekua da, baseŕitaŕen kolkoko azkuriaren baŕi ondo dakijana.

Onek, alkaŕtasunera deituten ei-eutsien. Eta entzuten eukazan baseŕitaŕ goragaŕijak, bayezko kontuba, erantzuten ei-eutsien. Bere itzaldi edeŕa amaitu ebanian, ¡arek entzun ei-ebazan txaluak!

"Zidorra"

Lin begikua ixildu zanian, Zeanuri'ko "Zidoŕa" asi ei-zan. Eta "Zidoŕa" asten danian, lau baŕegaŕikeri esanda ixildutekotan ezta asten, baŕuban ondo biribilduta eruaten dauzan egi-txorta gustijak entzulien entzumenetan saŕtuta imiñi aŕtian ekin osuan iñardutekotan baño.

Argintxona'taŕ Lin baseŕitaŕen eskotu-maratubak ondo uleŕtuten dabezana ba-da, eskutu-maratuon baŕi eztakijana eztogu, "Zidoŕa" be, ezta dagijana esateko miñian ugaŕa daukana be. Gu, astirik ezagatik, ezkiñala ixan esan dogu. Baña eztago ardura. "Zidoŕak" beriak eta bost esango ebazana, juan barik be ziñestuten dogu. Amaitukeran, "Zidoŕa,,'ri, a lako txaluak jo ei-eutsiezan...!

Irazusta'tar Jon Andoni

Azkenengo itz-egin ebana, Jon Andoni, Madrid'ko aldundijan aldun dan euzko-abeŕtzale ezgauna ixan ei-zan.

Jon Andoni'ren itzaldija, itzaldi sakontxuba ta irakatsi aundikua ixan be-ta, aŕtaz entzun ei-eutsien.

Jon Andoni'k lugin-auzijetzazko eskutu-maratu gustijen baŕi daki, ba. Orain Madrid'en atondu daben eŕentadore-lagi baŕijaren baŕi be bai.

Lagi-egite onetan, batzoŕdeko ixan zana, bera da.

Baña beñola emen Bilbao'ko "Centro Vasco,,'n egin eban itzaldijan esan euskunez, lagi baŕi oŕetako atalkirik geyenen auŕka dago, Jon Andoni.

Oneik gauza gustijok edo urtentxubenak asteleneko itzaldijan argi esango ebazala uste dogu. Beraz ezkuaz baŕiro emen esaten.

Eta amaitzeko esango dodana, auxe da: gure baseŕitaŕ jasankoŕak, itxaŕtu dirala. Baseŕitaŕai, emendik auŕera, itz utsakaz bakaŕik barik, egitadakaz juan biaŕko yake. Zemayakaz barik, gixa-bidiakaz. Urlija edo bestia aldun ixateko botuak erosteko txanpon ugeŕtubakaz barik, euren lungintzako bixipidia. joputzatik atarako dabezan gixa-lagi bidezkuakaz...

Baseŕitaŕak itxaŕtu dira... ¡Kontuz, gero, gure baseŕitaŕ zintzuakin...!

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

ERRIJETATIK

MAÑARIA

ELIZKIXUNA.— Lenengo barikuban Josu'ren Bijotz gozuaren opaz Jaunartziak eta otoitzak egin ziran. ¡Aintza Bijotz gozuari!

GEXOEN JAUNAŔTZIA. — Elexara etoŕi ezin diran gexuak, Pasko-aldiko Jaunaŕtzia igaroriko astian egin eben. Jaunak, osasuna emongo al-dautsoe; ko meni bayake beintzat...

EURIJA.—Eurija biaŕ ixan ba-da, egin dau ba eurija. Ta zapaŕada andiz egin be. Euri jauste onegaz luŕa aro-onekatu egin dala ta, danok gagoz pozik. Orain baña, solobaratentzat onuratsu ixateko eguzki argija ta eguraldi epelak biaŕ ei dira. Ori olan balitz, ze edeŕto! Baña... ziñiskoŕtxubak garialako edo, esakun-zaŕak artega samaŕ ipiñi gatu. "Mayetza otzak il, ta bagiĺa oztaz gelditu". Beraz, bada-ezpadan be, ondiño txartesak eztagiguzan bastertu, maŕanten batek edo, ortik-ziaŕ eruan ezkadixan be: kanpua galtzia ezta gauza ona ixango, baña ez geu galtzia be.

MAÑARIKO.

MUNGIA

ORDUBA ZAN.—Bai benetan orduba zan ta orduba eldu da geure Batzokija idegita ikustia, ainbeste iĺa itxita igaro ondoren alakoren baten be ¡au poza!

GEXORIK.—Ojinaga'taŕ Joseba jauna gexorik dago egunokaz. Ainbat lasteŕen osatutia opa dautsat.

ITXAROPENA-OGITEGIA. — Ixen onetako ogitegi baŕija egiten dauz, ta laster zabalduko dala diñue. Asko poztuten naz geutaŕ ogitegija eukitiagaz eŕijan.

EURIJA. — Mayatz erdijan gagoz ta elizpian baŕe santzuak entzuten dira. Odeyak negaŕez ikusirik lugiñak arpegi alayagaz dagoz. Eurija biaŕ ixan ba-da egin dau ba.

OŔIĹA.—Geure Ama'ren iĺa ixan aŕen, eztago antz andirik. Miren'en Alaba'n Bazkuna'n dagon ganoreagaz ezin askorik egin be. Geure ileroko jaunaŕtzea danean beti urtetandot elexatik umore txaŕagaz. ¡A da ganorea! Eta nik bakaŕik ezin ezer egin. ¿Nun daukagu gastetasun gaŕa, geure Amatxu gatik iĺa onetan, zeorertxo geyago ez egiteko?

TXORITXU-ALAI.

ELGOIBAR

ESKEŔIKASKO.—"Arno-pe" lanaren gomutagi (recordatoria) aŕtu degu Motriku'ko aren sendikuak bidalduta. Eskeŕik asko eta goguan izango degu zuen semia eta gure anai maitea.

IZPAŔ BELTZAK.—Ostegunian obiratu zan Aranbeŕi'taŕ Pantzeske "Maixitxa" baseŕiko amona 67 urte zitula.

Altzola-auzoan il da 32 uŕte beteta Landa Landaluze'taŕ Saturnina bilbotaŕa emengo "Txorikua"-ren emaztia

Laguntzen diegu atsegabian bi sendi tamaltsuberi.

EUZKEL-IXENA.— Miren Arantzazu euzkel-ixena politekin ugurutzatu dute, gure lagun diran Etxaniz'taŕ Purdentzi eta Aranbeŕi'taŕ Gotzone'ren alaba jayo beŕia. Aita bitxi izan ziran San Martin'daŕ Jon eta Aŕieta'taŕ Gaizkane jayo beŕiaren osaba ta amama.

Zorionak guraso euzkotaŕori.

EZKONTZAK. — Larunbatez, Ama Arantzazu'kuaren oñetan, uzteŕtu ziran Ezenaŕo'taŕ Eŕoman margolari gastia ta Gorostidi'taŕ Gergore "Uŕkiola" baseŕiko neskatilia. Osoro'taŕ Eŕoka Zoraluze'ko txaunburuak ezkon-beŕien osabak beren bedeinkatu zituan.

Txadon nagusian Zubiauŕe'taŕ Basili "Uzetxe" baseŕikua, ta Aranbeŕi'taŕ Jone "Andikao" baseŕiko neskatila polita.

Zorionak eta luzaroko izan zaiteztela opa dizutet.

NASKALDIJA.—Emen aguŕtau degu Eloŕtza'taŕ Imanol Donosti'ko mikeletietako sarjentua.

—Donosti'n, ilda Azpiazu'taŕ Enkaŕne emengo "Amistad" akeit-etxeko Agustin'en aŕeba (G. B.). Laguntzen diegu atzekabian.

AIXERIXA.

OYARTZUN

ANTZEZLARIEI OMENALDIA. — Donostia'n izan dan antzeztalde-batzaldian, Oyartzun'go "Mendiburu"-taldeak lendabiziko saria irabazi duala-ta, euzkal-jai edeŕ batzuek eratzekua da Batzokia, antzezlari trebien omenez.

Jai oyek, noiz eta nolakuak izango diran, jakiñan gañian jaŕiko ditugu irakuŕleak.

OLAIZOLA ANAYAK TXAPELDUN.—Azkeneko aldi ontan, Eŕenderi'ko batzokiko pelota-tokian jokatu dau Donosti'ko erbaŕutiko pelota - txapelketan, gure eŕiko Olaizola anaiak garaile atera dira.

Laixter Gipuzkoa'ko txapelketari asiera emango zayo ta ba'dakigu Olaizola'taŕak aguro xamaŕ jokatzekuak dirala beren lenengo partidua.

Zoriona, eta auŕera Oyartzun goratuaz!

JAUNAŔTZEA.—Joan zan igandean, zortziretan, emengo neska-mutil sail-galantak, bere jaunartze-nagusia izan zuan.

Elizkizuna benetan edeŕa izan zan, baño nexka mutilen apainketak azaltzeko, bai eguraldi txaŕa!

ONGI-ETOŔI.—Orain beŕiro arte Gipuzko-Buru-Batzaŕeko idazkari izan dana, Lizaso'taŕ Iñaki jauna, bere sendiarekin gure aŕtean aldi luzea igarotzeko asmoetan, "Sein txipi" etxe politara etoŕi da.

Atsegintsua izan bedi, zuen emengo egon aldia.

EUSKAL-IZENA.—"Doloresene" baseŕiko Lekuna'taŕ Jose'ren emazteak izan duen auŕari, Miren Edurne euskal-izen edeŕak jaŕi dizkate, batayatzerakoan.

Zorion ugariak egitazko sendi euskaldun oŕi.

ERIOTZA.—Azkeneko karlisten gudan Santa Crutz apaizarekin ibili zan "Etxetxo" baseŕiko aitona il da.

Naigabean laguntzen diegu sendikoai.

AÑARBE.

Euskeltzaleen Orpatza
Lko. BAT
Saltzalientzat
Saneurri bereziak
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia

Irakurri EUZKADI

Euzkotar Umien Aldez

Umeak ondo asitzeko eretatik zein artu beaŕ degu, maitetasuna ala aginpidea?

(Amaya)

> "Mutiltxoa ondo zaitzeko esan zidazun.". — Tristan Corbiere. "Mexico'ko eskutitza,,'n.

Azkeneko idaztian esan nituan aginpidearen alde diran egileak ematen dituzten aŕazoyak, eta amaitzean nion neu ere eurakin nengoala.

Neure burua egile abekin naaztea ez da gauza egokia noski, eta ori esatean ez nuan egile oyen parean neure burua ipinteko asmorik ez gutxiagorik ere, ez daukat neure burua jakintsutzat, ez naiz ta, baña gai onetzaz teorian zerbait ikasia naiz eta ekintza edo praktikan asko ikusia eta auxegaitik nere iritzia—apala ba'da ere—ematera ausartzen naiz.

Umea, era bi oyetatik bategaz bakaŕik asi beaŕ ba'da, aginpidetasuna maitetasuna baño obeagoa da.

Gurasoa naizen aŕen, iritzi au egitzat daukat eta onenentzat baita ere.

Ez da ordea nai-ta-nayezkoa era bietatik bata edo bestea, bat bakaŕik erabiltzea; biak erabili leikez.

Eta biak erabiltzekotan lenengotik aginpidea (autoridadea) gero maitetasuna. Umeak bi, iru urte dituanetik, sei zazpi urte bitaŕtean aginpidetasuna, sei zazpi urtetik auŕerantzian maitetasuna, biguntasuna—ez bigunkeria — erderaz persuasion esango gendukeana.

Begira zergaitik: Umeak asiera ona izango ba'dute, zazpi urte ordurako esana egiteko oitura artua euki beaŕ dute. Adin oŕetatik auŕera ez diogu oitura ori ezaŕiko.

Ume bati, iru edo lau urte dituzanean berak nai duana egiten utzi zayo, zer egiten duan ez dakiala ta, eta guk ematen dizkiogun azalpen edo ezplikazioak ulertzen ez dituela ta. Gerotxoago sei zazpi urtedun danean—esaten degu—ikasiko du esana egiten, juizioa eukiko du ta.

Baña beti berak nai duana egiten oitua dagoan umeari, zazpi urtera eltzen danean aldapa gora egiten zayo esana egitea, eta bere gurasoak, agindutakoaren zegaitia ematen diotenean, umeak bere burua gurasoenakin bat egiñaz eztabaida asiko du, agindua egitea atzegin ez ba'zayo.

Adibide bat ipiñiko det. Ara emen zortzi urtedun neskatxo baten eta bere amaren arteko alkaŕ-izketa:

Amak.—Ume, erantzi abaŕketa oyek, eta zapatak jantzi, euria egin beaŕ du ta. ("Euria egin beaŕ du ta" au, aginduaren zegaitia da, umeak ulertu dezan zergaitik agintzen zayon oñetakoak aldatzea.)

Umeak.—Ez, ama, ez du euririk egingo. (Umeak eskubidea du iritzi au izateko.)

Amak.—Gauŕ baño itxura gutxiagokin makiñabat bideŕ egiten du euria, bai? ta jantzi zapatak.

Umeak.—Ez, ama, atzo ere esan zenduan euria egin beaŕ zuala baña, etzuan egin.

Amak.—Eta egiten ba'du, zer egin beaŕ dezu abarketakin juan ezkero? (Umea, emen aŕapatuta dago, baña bere temakin ertentzeagaitik edozer gauza erantzungo du, auxe esaterako.)

—Egiten ba'du ere ez ditut oñak bustiko.

Amak.—Jesus mila bideŕ! Au ume aspergaŕia! Oñak busti gabe nola etoŕi beaŕ dezu ba ikastolatik etxeraño?

Umeak.—Etoŕiko naiz ama. (Umeak et du amoŕemango, sistema onek berez da kaŕen gauza da umeak bere burua gurasoenakin berdindu ta euren esan gu diskutitzea.

Ama, oneraño eltzen danean ne izango da noski, eta gogoŕ samaŕ esan du.)

—Ara, maite, ez dezaidazula odolik berotu, zenbat eta obeto esanago, ta ord da gutxiago obedezitzen dezun ume txa oŕek! Zapatak jazteko esan dizut, eta gero neri geyago itzik erasan, bete-be egin nazu oraintxen da.

Eta alaxen da izan ere. Aŕazoia be euki ta bere umiai gauza txiki au eragiteko oŕenbeste itz esan beaŕak, eta ala e lan ori guztia alpeŕik izateak, ama be senetik atera lezake eta bi gauza abe koren bat egitera eraman: Edo ume arpegi-arpegian zaplada bat eman, e umeari bertan bera nai duana egiten ut

Bai bata eta bai bestea, asiera ona aurka dauden gauzak. Bai bata eta b bestea, umea gaizki asitzeko gauzak.

Gurasoren batek irakuŕten ba'nau, b dakit egi-egia diotala esango duala.

Amaitu dezaten ba-a. Amak, aspert "nai dezun bat egin zazu ba" esan da a de egiten ba'du, umeak bereakin ertea ez du esanik egin.

Eta amak, umeak gogait eragin diol zaplada bat eman ba'dio umeari, ume ez du persuasion'en bidez esana egin, g goŕean baizik.

Ara ba biguntasunezko era onek, agipidetasunezko erak baño txaŕagora n eraman gaikezan; gogorkerizko erara.

Eta au bai dala era txaŕa! Au bai da era goŕotagaŕia!

Lenengo lenengotatik aginpidetasun (a toridad) eran asitako umeak beŕiz, txi txikitatik, berak batere igeŕi gabe esa egi ko oitura artua du, eta aunditxoa iz tera eltzen danean, aginduaren zega gurasoak azaltzen diotenean ez da iño aitarekin edo amarekin eztabaidan jard go, onela asitako umeak besteak baño ap lagoak, esangiñagoak lotzatiagoak eta it altsuagoak izan oi diralako.

AŔITOKIETA.

Mungitar Txoritxu alai'ri

Txori polit alaya
zer da diñozuna?
Astegunez elexan
erdera jaun dona?
¡Aiko eŕomerija!
Ezta, ba, Mungia
euzkeldun-eŕija?
¡Aŕanotan! auxe don
gauza mingaŕija:
¿Erdera utza elexan?
¡Pekatu anaija!
Ori egin dagijen
santuak nun dagoz?
¡Urtetako modeak
gustiz janda gagoz!
Buldarik ezta biaŕ
eŕderaz eiteko.
Erdera darabile
"beatak" pozteko!

Bertsolari baŕi bat.

Dr. R. Aranburu
AZALEKO SENDAGILEA
Egunero 11-1, 4-7.
FUEROS, 5. tercero. — DONOSTIA

SAÑA

(6)

Atal bakar bateko antzerki

Garro'tar Bernarta Ma'k

Ipar-Ameriketa'ko beste antzerki batetik euzkeraz atondua

(Amaya)

(Baŕu-baŕutik). Oi! nik etsera yuan gura dot—gure etse maitiaren berotan egon gura dot atzera—eta geure eskaratza baŕiro ikusi, eta beste andraren baten berbia neuri berbetan yagotala entzun, eta neuk be berari berba egin al ixan. Oi! Urte bi! Urte bi oneen luzia! Atxiña dala dirudi—eta denpora luze onetan ilda lez bai'nenguan eta iñoiz atzera etsera ezin yuan bai'nintekian lez irudituten yat.

ZENDOKIZ. — (Emaztearen berbaikereaz eta aren begietako uŕunera begiratzeaz kezkaz jaŕten da). Mari-Jesia; oba egingo dozu oira yuan. Zu ezagoz ondo.

MARI-JESUS.—(Entzungo ez bai'leutsan). Bakaŕ-bakaŕik ibilten nintzan ni, zu itxasuotan ibilten ziñanian. Eta Mundaka, gure eŕitxu polita, alameneko leku gogaikaŕiya zala iruditxuten yatan. Onegaitik, itxasondoko atxetara eta arietzara yuaten nintzan, batez be egun aixetsuetan eta olatuak bitsezko gangaŕa atara ostean euren ganean bira-biraka ausi eta ezereztuten diran egunetan. Eta zuk itxasuotan ixango zeunkian lotura bako bixitza edeŕa bururatuta, ames egiten neban itxasoko libertadiaz. (Baŕe karkaŕ egin gura dau—eta intziri antzeko baŕeak urteten dautso). Orduan, maite be maite ixaten neban itxasua. (Isil-une baten ostean, ba-daŕaiko baŕiro bere, baña geldiro eta sakon). Baia, orain—eztot itxasorik baŕiro ikusi gura.

ZENDOKIZ.—(Emaztea alaituko daualakoan). Ai, ez; ezta andrentzat alalako lekua—ez itxasua, beintzat. Zorakeri bat egin neban zu baŕuan ekaŕtian.

MARI-JESUS.—(Isil-une baten ostean—begiak igurtzen dituz esku zabalaz, gogait-aldi edo abail-aldi eziñagokoaren pariztea egiñik). Zenbat denpora biaŕ ixango geunke etsera elduteko—gauŕ berton aranzko abiyauko ba'giñatez?

ZENDOKIZ.—(Betoskoaz). Ile pare bat inguru Homeport'erako, Mari-Jesus—ori, gero, suerte onagaz.

MARI-JESUS.—(Atzamaŕakaz zenbatuten asten da. Gero—iŕi-baŕe zoro zabal bategaz). Orduan, Agostuan, Agostuaren azkenetan Homeport'en, eta Uŕiyan, Mundaka'n—Mundaka'ko geure etsian—ezta alan? Uŕilaren 25'a ixan zan gu ezkondu giñian eguna—ezta alan, Jose Migel?

ZENDOKIZ.—(Emazteak gomutarazoten dautsonak biotzean ikutu dau, baña ikutu ez bai'leuan egin gura dau; —gaŕatz). Ezara "zeu" gomutaten, ala?

MARI-JESUS. — (Zorabiauta legez—begien ganetik igaroten dau eskua baŕiro). Gomutia niri yuaten asi yat—emen lei taŕtian gagozanetik aŕezkero. Ain ixan da atxiña ze...! (Isil-une bat—gero, iŕibaŕeka eta ameslari). Orain Bagiĺa da. Oingotz gure auŕeko ortutxua kabeliña goŕiz bete-beterik dago, eta gure etxe ingurua apain-apain dago, laŕosa politez yantzita, alboko ormetatik gora ta gora—Mayatzerako loratuta egoten dira.

(Bat-batean esku-aŕtean gordeten dau arpegia eta negaŕ sotinka asten da.)

ZENDOKIZ.—(Arteak aŕtu eziñik). Zuaz eta atseden egixu. Zeure burua alpeŕ-alpeŕik eyoten zagoz, norarik eztaukon gauziaz.

MARI-JESUS.—(Ostera bere, bat-batean, senaŕaren kokot inguruan besoak ezaŕirik, laztanduta, ezkegita legez gelditzen yako). Maite nozu zuk, Jose Migel; enozu maite?

ZENDOKIZ.— (Emaztearen urteyereaz zurtzauta). Maite zaitudazanentz? Zergaitik esaten dostazu olako gauzarik?

MARI-JESUS.—(Senaŕa koketetik astin egiñez—uzukiro). Ba-nozu zuk maite, Jose Migel; enozu? Esan!

ZENDOKIZ.—Senaŕa nayatzu, Mari Jesus, eta neure emaztia zaitudaz. Amodiyua ta maitasuna baño zer besterik egon da zu ta biyon aŕtian irauko urte guztiyeton?

MARI-JESUS.—(Baŕiro senaŕari kokotetik eragiñez, len baño uzuago). Orduan, ba-nozu maite! Esaidazu, baia!

ZENDOKIZ. — (Doi-doi). Ba-zaitut, Mari-Jesus.

MARI-ESUS.—(Asazkaldi egiñez, bere alboetara jausten izten dautse eskueri. Zendokiz urduri-urduri yagoko begira. Mari-Jesus'ek, bekoki eta begi gane zeaŕ igaroten dau eskua. Bere buruari berbetan bai'leragoion). Entzuten egoten naz pentsaten—umetxuren bat euki ixan ba'gendu guk—besterik ezian—(Biotz-biotzean ikututa, Zendokiz'ek, beste aldera biuŕtzen dau burua. Mari-Jesus'ek besotik elduten dautso eta atzera berari begira jaŕi erazoten dautso. Sakon sakon). Ni beti ixan nayatzu emazte ona—enayatzu ixan, Jose Migel?

ZENDOKIZ(Ez dau erakusten emon gura, baña berbaikereak salatuten dautso biotzean ikututa dagoana). Eztau gixonek eguno obarik ixan, Mari-Jesus.

MARI-JESUS.—Eta nik eztotsut eguno gauza andirik eskatu, ezta Jose Migel? Eskatu dotsut?

ZENDOKIZ.—Ba-dakixu, Mari-Jesus, nik emon al neiketsun guztiya zeure-zeuria dana.

MARI-JESUS. — (Ausaŕki). Orduan, egixu au neure amoriaŕen—Jaungoikuaŕen—eruan naixu ni etsera! Il egin biaŕ naue ni emengo bixikeriak—emengo gogortadak—emengo otzak eta emengo gauza ikaragaŕi guztiyak. Zoratu egin biaŕ yat burua.. Neuk entzuten dotsat aixiari, il egingo nauela arek be—egun batian bai eta bestian be bai yabiltaz orixe esaten—eta beti bardin, emengo egun triste guztiyetan. Ezin dot geyago. (Negaŕ sotinka). Zoratu egingo yat burua—neuk dakit egingo yatana. Eruan ni etsera, Jose Migel. Diñozun lez maite ba'nozu, enaixu ni emen euki. Bildur naz. Jaungoikuaŕen, eruan naixu etsera!

(Baŕiro botaten dautsoz besoak senaŕari kokot ingurura, eta aren sorbalda ganean burua dauala, negaŕez asten da. Zendokiz'en arpegiak, gura ez dauala bere, aren baŕuan dabilen buŕuka gogoŕa emoten dau erakusten. Azkenean, senaŕak, maitekiro eta arpegikerea bigunduta, emazteari sorbaldetatik oratu eta bere besoen luzera guztian aldendu erazoten dautso. Emaztearen negaŕezko arpegia ikustean, Zendokiz'en burdiñazko gogoa makaldu egiten da, eta une baten bere sorbalderi amore emonez, zaaŕ itxuren artzen dau.)

ZENDOKIZ.—(Itz bakotxa nekez bere nekez ateraten daualarik). Egingo dot, ba, Mari-Jesus—egingo dot—zeure amoriaŕen—zuretzat ain biaŕ-biaŕezkua ba'da.

MARI-JESUS.—(Pozez beterik—mosu egiten dautso senaŕari). Jaungoikuak bedeinkatu zaizala oŕegaitik, Jose Migel.

(Geyago barik eta isil-isilik, Zendokiz emazteaganik biuŕtuta, eskoeko aterantz abiauten da. Une aretan bertan, oñotsak entzuten dira ango zurubian beera datozela. Arik gitxigaŕenian, Ibakaitz, Bigaŕen Pilitua sartzen da gela-aretoan.)

IBAIKAITZ.—(Joranez). Kapitana; leya ipaŕaldetik be aŕakalatuten asi da. Lei kaŕalduen aŕtetik untziyarentzat pasu garbiya dago, eta serbioliak diñonez, asago-asagoraño dago ura garbi.

(Zendokiz buru-zut jaŕten da, zorabio aldiren baterik urtengo litzaken gizonaren antzera. Mari-Jesus'ek izututa begiratuten dautso Pilituari.)

ZENDOKIZ.—(Beste zorabio-aldi bat bai'letoŕkion—bere gogoetak batu eta alkaŕtu gurarik). Pasu garbiya, diñozu? Ipaŕerantz?

—IBAKAITZ.—Bai, jauna.

ZENDOKIZ.—(Bat-batean abotsa gogoŕtuten daualarik, erabagi sendoa aŕtu bait-dau—astiro). Orduan, egin maniobria untziyari bela emoteko, ta andixek eruango dogu.

IBAKAITZ.—Bai, jauna, bai.

MARI-JESUS.— (Deyez). Jose-Migel!

ZENDOKIZ.—(Emaztearen deyari sor-goŕ). Yuango dira gixonak onez-onian, ala aŕastaka eruan biaŕko doguz?

IBAKAITZ.—Onez-onian yuango dira, bai ondo be! Bestelako bilduŕa eztotse beoŕek kolkuan saŕtu! Bekerekiak baño mantsuago dagoz guztiyak.

ZENDOKIZ. — Imiñi gixon guztiyak, orduan, maniobra egiten. Deitu guardiya biyari. (Geldiro-betoskoaz). Balia dago lei kaŕalduen beste aldian, eta atrapa egin biaŕ dogu.

IBAKAITZ.—Bai, jauna, bai.

(Itsumustuan urteten dau. Arik gitxigaŕenean, batera eta bestera iradu dabiltzan oñotsak entzuten dira kuberta ganean, eta Pilituaren abotsa aginduak emoten).

ZENDOKIZ.—(Bere buruari berbaltuka—isekaz). Eta iyaiya, etsera yuateko egon nok, txakuŕ epel baten antzera!

MARI-JESUS.—(Aŕenka). Jose Migel!

ZENDOKIZ.—(Agiraka). Andria; zuek androk eztozue ondo egiten gixonen arazuetan saŕtziaz, gixonak kikildu baño eztozuez egiten-da. Ezin dozuz zuk aitu nire asmuak. Zeure senaŕagaz aŕo egoteko lango gixona nazela emon biar dot erakusten. Oŕeeri gixon astuori irabazpidia erakutsi biaŕ dotsate—saña atrapa biar dot—eta atrapa egingo dot, neuk diñotsut.

MARI-JESUS(Eŕeguka). Jose Migel! Eztaruazu untziya etserantz?

ZENDOKIZ.—(Itaune oneri ez-entzun egiñik—aginduka). Zu ezagoz ondo Zuaz etxuten apuŕ baten. (Ba-doa aterantz). Kuberta ganera yuan biaŕ dot. (Urten egiten dau).

MARI-JESUS.—(Aren atzetik, deika, naigabez beterik). Jose Migel! Jose Migel!

(Isil-unea. Mari-Jesus, gizona aldendu dan atera elduta, aren albo banatan eskuak imiñi eta burua luzetuten dau senaŕa aldendu dan tokirantz begira. Gero, gela baŕurantz biuŕturik, begien ganetik igaroten dau eskua—eta arik gitxigaŕenian, baŕeka asten da—baŕe algaraka—baŕe gan gaŕez—eta armoniora doa. Aren auŕean jezaŕirik, eresi zaaŕ bat joten asten da, ekiñalean ("Jeiki, jeiki, etxenkuak"-esaterako)—baña era txaŕean joten dau eresia, eŕakuntza andiakaz. Baŕiro sartzen da Zendokiz eskoeko aldetik, eta ate postan, asaŕez beterik jaŕten da emazteari begira. Ba-datoŕ baŕura eta sorbaldetarik oratuten dautso emazteari laztasunez.)

ZENDOKIZ.—Andria; ze burla zoro da au? (Karkarka egiten dau baŕe Mari-Jesus'ek eta Zendokiz'ek, susmo txaŕez bilduŕtuta, atzerantz egiten dau). Mari-Jesus! Zer dozu olan ibilteko? (Mari-Jesus'ek ez dautso erantzuten. Zendokiz abotsak dardar egiten dau). Enozu ezagututen, Mari-Jesus?

(Baŕiro eskuak emaztearen sorbaldetan ezaŕirik, biuŕtu erazo egiten dautso, begietan begiratu dagiontzat. Mari-Jesus'ek tentel antzeko begirakera galdu bategaz begiratuten dautso senaŕari, ezpanetan ezin esan-alako iŕi-baŕe its bat daualarik. Ostera bere, Zendokiz'ek atzerantz egiten dau, zozorbata, emaztea libre itzirik, eta Mari-Jesus, baŕiro bere armonioa joten asten da—umeeri lo eragiteko eresi bigun bat joten oraingotan...)

ZENDOKIZ.—(Aoko txistua nekez iruntsiten legez—erdi aopean eta gaŕamaztu). Len esan dozuna—burua—burua zoratu egingo yatzula... Jaungoiko maitia! (Aldaŕi luze bat entzuten da ganetik, kuberta aldetik). A!—balia, antza! (Arik gitxigaŕenian Ibakaitz'en arpegia agertzen da argibidetik, goitik. Arek ez dau Kapitanesea ikusten—ezin dau ikusi).

IBAKAITZ. — (Arnasestuka—joranez). Baliak, Kapitana—satsa lez baliak—estriboŕetik bost mila edo arantzago—andi-andiyak!

ZENDOKIZ.—(Bera konturatu barik, aginduak emoten). Batelak uretara eŕiyetako prest imiñi dozuez?

IBAKAITZ.—Bai, jauna.

ZENDOKIZ.—(Erabagi sendoaz). Oi txe natoŕ zeugaz.

IBAKAITZ.—Bai, jauna, bai. (Po beterik). Ointxe atrapauko dau saña, b oŕek zenbat gura, Kapitana. (Ibakaitz' burua aldenduten da, eta beingoan ent ten dira aginduzko deyak eta txistu

ZENDOKIZ.—(Emazteagana biuŕturik Mari-Jesus! Entzun dotsazu? Saña atrapako dotala. (Ez dautso andreak ez era tzuten ez Zendokiz an dagola dakian antzik emoten. Zendokiz'ek baŕe-kaŕ bat jauŕtiten dau—iya-iya oŕoia dan ba kaŕkaŕa). Badakit nik neuri amoŕatu er zotiaŕen zabiltzana, Mari-Jesus! Ezag burutik eginda—(joranez)—ezagoz, ezt Ointxe atrapauko dot saña neuk ze gura—ointxe, denpora gitxi baŕu, Ma -Jesus—eta beinguan yuango gara ets antz. Ointxe-ointxe ezin yuan naite porturantz—ikusten dozu ezin yuan nai kiala, ezta? Saña atrapa biaŕ dot! (B batean izututa gelditzen da).

MARI-JESUS.—(Armonio-jezarleku jagita, eskapolotera doa, eta aren gan dagon otzaratik eŕopa batzuk aŕtuta, bi bildu—luzean biribilduten dituz eta ger seiña bai'litzan uauaka asten yako). Er lorik egin,

ZENDOKIZ.—(Izu laboŕian). Erantzu dazu! Ezagoz zoratuta, ezta?

(Seintzakoa besoetan kulunkatzen dara goio Mari-Jesus'ek, ezer erantzun barik, Ibakaitz'en arpegia agertzen da baŕira goiko argibidetik.)

IBAKAITZ.—Dana dago listo, Kap tana!

(Zendokiz, emazteari gibel egin—atra emonda—aterantz abiauten da. Ate auŕe txoan gelditurik, emazteagana begiratute dan atsekabez beterik—laŕitasunez—bere biotzaren eta bere asmuen aŕteko buŕuk itzala goitu gurarik.)

IBAKAITZ.—Ba-datoŕ, ala, Kapitana!

ZENDOKIZ.— (Bat-batean arpegikere gogoŕtuten dau, erabagi sendo batek era ginda legez). Ba-nua.

(Braustada bategaz biuŕturik, Zendoki 'ek urten egiten dau. Mari-Jesus'eri e yako agiri senaŕaren urteyereaz oaŕtu da nik. Aren ardura guztia seintzakoaga batuta dagola dirudi. Armonioko jezaŕle kuan jezaŕten da, armonioari atzekera, eta seintzako dituzan trapuak alda ganean imiñi eta ume-oyalak bai'liran batuez, se ñari lo eragiteko lez asten da kulunkaka, begirakera galduaz auŕera begira-begira.)

(ANTZOYALA JATZITEN DA)